

itzulpena: Luigi Anselmi

ETRA BOUND





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Ezra Pound

itzulpena: LUIGI ANSELMINI

 **Susana** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

- © Ezra Pound
- © itzulpenarena: Luigi Anselmi
- © edizio honena: Susa

2018ko apirila

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Poeta gutxi dira XX. mendean Ezra Pounden garrantzia eta prestigioa eskuratu dutenak. Erreferentzia ezinbestekoa izaki, eragin handia izan du ondorengo poetengan. Gurean, esaterako, presentzia azpimarratzekoa du Bernardo Atxagaren *Etiopia* poema liburuan; hango “etcetera” famatuak, adibidez, Poundengandik hartuak dira.

“Make it new!” (Egizu berri!) izan zen Pounden aldarri ezagunetako bat, modernismo anglosaxoiaren goiburu bihurtu zena denborarekin. Berritasunaren eta hausturaren poetika bultzatu zuen, Harold Rosenberg arte kritikariak, “berritasunaren tradizioa” deitu zuen horren ildoan. Izan ere, Pounden obra irakurrita, bistakoa da berritasuna eta tradizioa ez direla zertan kontzeptu kontrajarriak izan; alderantziz, biak hertsiki loturik egon daitezke, halako moldez non, berritasuna tradizioa ulertzeko modu berri bat baino ez den. Ikustea besterik ez dugu zenbat erreferentzia tradiziozko aurki daitezke Pounden poesian. Ondare poetiko greko-latindarra aldean du beti, hainbesteraino ezen ugariak baitira erabiltzen dituen latinezko esamolde eta hitzak (poemen titulu direnak sarri). Halaber, trobadoreen poesiaren (*Provincia Deserta*

poema ederra) eta Errenazimentuko poesiaren (Dante) arrastoa ez da nolanahikoa.

Imaginismoa deitu izan zitzaion mugimendu abangoardistako buru garrantzitsuena izan zen Pound, eta Mendebaldeko poesia iraultzea lortu zuen, tartean, Japoniako eta Txinako literatur tradizioetik edanez. Iruditeria bizi eta aratza bilatzen zuen bere poesian, hain justu literatur tradizio horietan ohikoak diren argazki poetiko sotilen uberan. Irudi horiek osatzeko, Poundek “xehetasun argitsuak” bilatzen zituela esan izan zuen inoiz.

Estatubatuarra jaiotzez (1885ean jaio zen Idaho-ko herrixka batean), gazte zelarik mudatu zen Europara. Italiatik pasa ondoren, Londresera joan zen bizitzera 1908ko abuztuan, eta han geratu zen 1920 arte. Orduan hasi zen bere lehenengo lanak publikatzen eta zenbait literatur aldizkari estatubatuarren editore gisa lanean. Han ezagutu zituen, halaber, garaiko idazle anglosaxoi handienetako batzuk: W.B. Yeats, T.E. Hulme. Hildo Doolittle ezagutu eta luze gabe hasi ziren beren ideia imaginistak hedatzen. 1910eko hamarkadan Japoniako eta Txinako literatura klasikoa ikertzen jardun, eta bere lanean izugarritzko eragina izan zuten. Horren adibide behinena *Cathay* li-

buru berezia da. Berez Txinako zenbait poema klasi-
koren itzulpena dena, benetan Pounden errekreazio-
ak dira, Ernest Fenollosa irakasle orientalistaren
ohar batzuk oinarri (Poundek ez zekien txineraz). Ur-
te horien bueltan hasi zuen halaber, bere bizitzako
egitasmo poetiko handiena, *The Cantos*, 116 kantuko
poema luzea, amaitu gabe utzi zuena. Horietako *I.*
Kantua duzue kaier honetan irakurgai.

Parisen lau urtez bizi ondoren, Italiara, Rapallora
mugitu zen 1924an. Bigarren Mundu Gerraren ata-
rian faxismoaren alde jarri eta haren aldeko idazkiak
idazten hasi zen egunkarietan. Gerraren amaierare-
kin atxilotu eta kartzelara sartu zuten partisanoek,
harik eta, aste gutxiren buruan Estatu Batuetara bi-
dali eta traizioagatik epaitu zuten arte. Buru-gaixot-
zat diagnostikaturik, St. Elizabeth ospitalean gorde
zuten 1958. urtea arte. Handik atera zenean, Italiara
itzuli eta han bizi izan zen. Venezian hil zen 1972an.

Pounden unibertso poetiko erraldoi eta atxiki ezi-
naren sarrera duzue honakoa. Euskaraz gauza sol-
teak argitaratuak baziren ere (Jabier Kaltzakortak,
Eduardo Gil Berak), liburu hau duzue Pounden euska-
razko lehena. Gozamina larderiari gailen dakiola.

BEÑAT SARASOLA

Neska bat

Zuhaitza ene eskuetan sartu da,
Sapa ene besoetarik igo,
Zuhaitza ene kolkoan hazi da—
Beherantza,
Ene baitarik adaxkak zabaltzen ari, besoak bezala.

Zuhaitza zaitut,
Goroldioa zaitut,
Gainean haizea duten brioletak zaitut.
Haurra —hain zara garaia— zaitut
Eta honi guzi honi erokeria deritzo munduak.

Orein zuria

Hodei artean txilardian ikusi ditut
Horra nola gelditzen diren ez amodioak, ez minak
jota,
Haien begiak, baina, neskatila batenak dira
maitalearentzat
Oreinarrak ezkutuko aterpea hautsi eta
Haize zuriak egun argia urratzen duenean.

“Fama dugu orein zuri hau, eta zelatan gaude,
Entzun dezatela munduko ehiza-txakurrek adar-
hotsa!”.

Guidok honela gonbidatzen zaitu

“Lappo gibelean utzi dut, baita Dante ere,
Hara, itsasoetan barna abiatuko naiz zurekin soilki!
Ez egidazu maitasun-solasik, ez azoka-saltzaileen
gezurrik esan.

Nirea da ontzia, merkantziak zureak
Mundu itsu osoak ez daki zuk hel egin zenion,
Nik hel egin nion ekintzaren berri.

Hara, ametsez estekaturik ikusi zaitut,
Hara, zure bihotza eta zure bihotzaren nahia
ezagutu ditut;

Bizia, bizi osoa, ene itsasoa eta gizaki guztien ur-
lasterrak

Bertan elkartzen dira sugarrak aldare batean
bezalaxe!

Hara, zuk ez duzu bidaiarik egin! Nirea da
itsasontzia!”.

Norberaren bisaiaz ispiluan

Ispiluan hagoen aurpegi arrotz horrek,
Konpainia zantar, ostaler saindu horrek,
Nahigabetutako ene ero horrek
Zer erantzun behar duk? Hi,
Borrokan, jolasean, iragaiten,
Isekaz, erronkan, gezurretan
Ari haizen ezin konta ahala hori!
Ni? Ni? Ni?

Eta hi?

Begiak

Har ezazu atsedean, maisu, akiturik gaudelako
eta haizearen erhiak berun urtua bezain astunak
antzemanen genituzke
ixten ari zaizkigun betazal umel hauen gainean.

Har ezazu atsedean, anaia, egunsentia dugu hor
kanpoan!

Gar horixka zurbildu da
eta ezkoa urtuz doa pixkanaka.

Aska gaitzazu, kanpoan koloreak ederrak baitira
Basoko lizunaren ferdea, lilien kolore anitzak
Eta zuhaitzen azpian hozkirria.

Aska gaitzazu, arren, hiltzen ari baikara
Inprimatzeko marka itsusien
Monotoniaren isuri eternalean,
Beltza pergamu zurien gainean.

Aska gaitzazu, zeren eta bada norbait
Zeinen irriak zure liburuetako jakintza
guztiak baino gehiago balio duen
eta hari begira paratu nahi genuke

Francesca

Gauetik heldu zinen
eta liliak zenituen eskuetan,
orain giza nahaste batetik helduko zara,
zuri buruzko berriketa zurrunbilo batetik.

Gauzarik behinenen artean ikusi zaitudanez,
Suminduegi nintzen zure izena
leku trauskiletan aipatu zutenean.
Nahi nuke olatu hotzek nire gogoa estaliko balute
eta mundua lehortuko balitz orbel
baten pare

edo txikori belarraren leka bat bezala haizeak
eramango banindu,
zu berriro aurkitu ahal izateko
bakarrik.

Erat Hora

“Eskerrik asko, datorrena datorrela”. Eta gero
bizkarra eman zidan
eta haizeak alde batera makurtzen dituenean,
zintzilik dauden loreen gainean eguzki izpia
aienatzen den bezala,
urrundu zen nigandik fite. Hala ere, datorrena
datorrela,
eguzki ordu bat egon zen eta jainko gorenek ere
ez lukete harro egoteko deus hoberik izango
ordu hori igarotzen ikusi izana baino.

Mr. Housman-en mezua

Oi, ai, ai,
jendea sortu eta hil egiten da,
geu ere hilko gara berehala
beraz honezkero hilik gaudelako
itxurak egin ditzagun.

Txoria elorrian pausatzen da,
baina bera ere hilko da luze gabe.
Batzuk urkamendian hiltzen dira, bestetzuk tiro
batez,
Gizakien patua tamalgarria da oso.
Ai, ai, ai, eta abar...

Londres leku deitoragarria dugu,
Askoz hobea dugu Shropshire.
Hortaz irri egin dezagun une batez
Natura maitagarriaren grazia gaixoberaren gainean.
Oi, ai, ai, ai eta abar...

Aldarea

Eraiki dezagun hemen adiskidantza eder bat.
Su-lamak, udagoienak eta amodioaren arrosa
ferdeak

Euren gudua borrokatu zuten hemen, harrigarritzko
leku honetan;

Egon zireneko, elkartu zireneko toki hura lur
sakratua dugu.

In Exitum Cuiusdam

Norbait aldentzean

“Denbora uholde garratza da!”. Oi, hori guztia oso
ondo dago

Baina non ote dago banandu ez zen lagun zahar
hura,

Eta ospea lehenengoz besarkatu zenuenean,
bostekoa ematean eskua laxatu
zuen?

Zure zirkulua ezagutzen dut eta esan dezaket
okertzeko beldurrik gabe

Zer gorde duzun eta zer utzi duzun atzean

Nik neure zirkulua ezagutzen dut eta badakit, ederki
jakin ere

Zenbat aurpegi lekoratu dudan nire oroimenetik.

N.Y.

Ene hiria, ene maitea, ene zuria! Ai, mehe hori,
Entzun! Entzun niri, eta arima bat ufatuko dut zure
baitan.

Eztiki xaramelaren gainean, beha niri!

Orain badakit eroturik nagoela,
Milioi bat lagun baitaude trafikoarekin ernegaturik;
Hiri hau ez da birjina.
Eta nik ez nuke xaramela jotzerik izanen, halakorik
banu ere.

Ene hiria, ene maitea,
Bularrik gabeko dontzeila zara zu,
Mehea zara zilarrezko xaramela bat bezain.
Entzun, beha nazazu!
Eta arima bat ufatuko dut zure baitan
Eta betiko biziko zara.

Soin-gaina

Gordetzen al duzu zure arrosa-hostoa
arrosaren denbora iraungi artean?

Uste al duzu Heriok musukatuko zaituela?

Uste al duzu Etxe Goibelak

Bilatuko dizula nilako

Maitalerik? Zure hutsa sentituko dute arrosa
berriek?

Hobetsi nire soin-gaina hautsezko soin-gaina baino;

Haren azpian azken urtea datza,

Ezen gehiago mesfida zintezke denboraz

Nire begiez baino.

Orratza

Etor zaitez, bestela izarretako marea isilean joango da.

Saihets ezazu ekialderantz gainbeheraren orena,
Orain! Orain orratza dardarka ari baita nire
bihotzean!

Hemen abantaila handia izan dugu, ordu ona, ordu egokia.

Hemen izan dugu gure eguna, zurea eta nirea.
Etor zaitez orain, biok garamatzen botere hau
Polo aldera biratu baino lehen.

Ez egin barrerik izarretako korronteei, zera gertatuko da.

Oi maitea, etorri orain, lur hau zitalduz doa
pixkanaka.

Uhinak heldu ziren eta luze gabe alde egingo dute.

Gurea da altxorra, lehorrera dezagun lehenbailehen.
Mugi gaitzen eta balia dezagun itsasaldia bere
hurrengo mesedearekin.

Bizi gaitzen
Indar neutroren baten azpian
Bide hau alde batera biratu arte.

Sub Mare

Bada eta ez da, zuhur samarra naiz,
Heldu zarenetik leku hau ziraldoka ari da nire
inguruan,
Udazkeneko arrosez eraikitako ameskeria hau
Gero badago urrezko kolore bat, ezberdina.

Eta haztamuka darabiltzagu gauza hauek
Zolako uhinen itsas belar hauskorrek
Gora eta behera dabiltzalarik,
Itsaspeko ur ferde argi moteletan,
Beraien izena baino are zaharragoak diren gauza
hauen artean,
Jainkoaren ezagun diren gauzok, alegia.

Urperatzea

Harriduran bainatuko nintzateke:

Nire ganean metatutako erosotasun hauek itotzen
naute!

Gauza berrien irrikak erretzen nau, kiskaltzen,
Adiskide berriak, aurpegi berriak,
Lekuak!

Oi honetatik at egotea,
Irrikatzen nuen guztia zen honetatik
—Berria izan ezik.

Eta zu,

Maite hori, nahiena, desiratuena!

Ez ote ditut harresiak, karrikak, harriak oro hastio,

Lokatz, langar, behelainoak oro

Trafiko bide eta erak oro?

Nahi nuke nire ganean isuriko bazina uraren pare

Oi, baina honetatik urrun!

Belarra eta pentzeak eta alorrak eta muinoak

Eta eguzkia.

Behar adina eguzki!

Kanpoan eta bakarrik,

Jende arrotzen artean!

Post Mortem Conspectu

Haur beltzaran eder eta gizena, loto-lorean eserita

Eta zu pozik eta barrez

Mundu honetako ez zen barre batekin.

Uretan plisti-plasta ibiltzea ona da

Eta gauza guztien bukaeran barrea.

Eta egunak ez dira aski beterik

Eta gauak ez dira aski beterik

Eta bizitza isilean doa landa-sagu bat bezala,

Belarra inarrosi gabe.

Tenzone

Onartuko ditu jendeak?

(kanta hauek, esan nahi dut)

Zentauro batek izututako neskato batzuen antzera

(edo zenturioi batek, auskalo),

Ihesi abiatu dira beldur-ikaraz garrasika.

Egiantzekotasunek hunkituko ote ditu?

Ez dago haien ergelkeria birjinala tentatzerik.

Otoi, arren ene kritikari lagun horiek

Ez ibili inguruan niretzako entzuleak bildu nahian.

Nire kideekin batera bizi naiz goiko haitzetan;

Hormetako zulo ezkutuek

nire oinotsen oihartzuna entzun dute.

Argi hotza dugu

Ilunpean.

Dolumina

A mis soledades voy.
De mis soledades vengo.
Porque por andar conmigo
Me bastan mis pensamientos.

LOPE DE VEGA

Oi, ene sufrikario-kideak, ene gaztaroko abestiak.
Asto talde batek goresten zaituzte “adoretsuak”
zaretelako,
Gu, zuek, ni! Kementsuak gara, “odol gorrikoak”!
Imajina ezazue, ene sufrikario-kideok—
Gure gizontasunak urruntzen gaitu tropeletik
Nork aurreikusiko zuen?

Oi ene sufrikario-kide maiteok, zuhaizpean gorde
ginen,
Gizontasunezko ergelkeriaz nazka-nazka eginda
geunden.
Aurrera segitu genuen gogoeta samurrak biltzen.
Gure “fantastikoenak” gure zerbitzaria izatea maite
zuen.

Emakumeek ez gintuzten geure onetik ateratzen,
Emaztea aldaerraz eta mudakorra baita.

Eta orain entzun dezakezu zer esaten duten gutaz:
Konparatu egiten gaituzte euren sexuaz
Harrotzen diren lagun horiekin
Oraintsu deskubritu balute bezala.
Baina utz ditzagun kontu hauek alde batera, ene
abestiok.

Eta itzul gaitezen gure ardurak jasotzen
dituen horretara.

Txapitela

Tira, urrikal gakizkien gu baino aberatsago direnei.

Tira, adiskide, eta ez ahaztu

dirudunek etxezainak dituztela, ez

adiskiderik,

eta guk, berriz, etxezainak barik, adiskideak

ditugula.

Tira, urrikal gakizkien ezkondu zein ezkongabeei.

Goizargia behatz puntetan sartu da

urrezko Paulova bat irudi,

eta hurbil daukat neure nahia.

Bizitzak ere ez du bere baitan

argitasun oren hozkirri hau,

elkarren ondoan atzartzen gareneko une hau,

baino gauza hoberik.

Ortus

Nola egin dut lan?

Nola ez ote dut lan egin

Bere arimari bizia emateko,

Elementu hauei izena eta tokia emateko!

Eguzki argia bezain ederra da, bezain isurkorra.

Ez du ez izenik ez lekurik ere.

Nola lan egin behar izan dut haren arima

bereizteko,

Izena eta izana emateko.

Loturik zaude, ziur aski, eta kiribildurik,

Jaiogabeko elementuekin nahasturik zaude;

Erreka maite izan dut eta itzala.

Otoi, arren, sar zaitez zure biziaren baitan.

Otoi, arren, ikas ezazu “ni” esaten

Galdetzen dizudanean,

Zu ez baitzara zati bat, osotasuna baizik,

Ez atal bat, baina izaki osoa.

Salutazioa

Oi, erabat handiusteen eta arras
konformagaitzen belaunaldi hori,
arrantzaleak ikusi ditut eguzkipean picnic-ak egiten,
haien familia zarpail eta narrasekin ditut ikusi,
haien hortzez betetako irribarreak ditut ikusi,
haien irri karkail baldarrak entzun.
Eta zuek baino zoriontsuagoa naiz
Eta haiek ni baino zoriontsuagoak ziren;
Eta arrainak aintziran igerian ari
Eta jantzirik ere ez dute!

Bigarren salutazionea

Goraipatuak izan zineten, ene liburuok,
Landatik etorri berria nintzelako;
Hogei urte berandu heldu nintzen,
Hortaz, audientzia prest topatu zenuten.
Nik ez zaituztet arbuiatzen
Ez ukatu, beraz, zuen jatorria.

Hementxe ditugu, amarru xebrerik gabe
Hementxe ditugu, deus ez arkaikorik haien
inguruan.

Ikus ezazue amorrua oro har:

“Hau al da —diote— olerkariengandik
Espero dugun zentzugabekeria?”.

“Non daude xebrekeriak eta gauza ikusgarriak?”.
“Non da zirraren zorabioa?”.

“Ez, haren lehen lana izan zen onena”.

“Gizagaixoari ametsak zapuztu zaizkio”.

“Zoazte, abestitxo biluz, lotsagabe horiek,

Zoazte urrats arinean!

(edo bi urrats arinetan, hala nahiago baduzue)

Zoazte lotsarik gabe dantza egitera!

Zoazte ozar eta ahalkerik gabe jolastera!”.

Agurtu sasi-jakintsu harroak eta serio goibelak

Salutatu haiek guztiak erpurua sudur gainean jarriz.

Hementxe dituzue zuen ezkilak eta konfetia.

Zoazte! Gaztetu itzazue gauzak!

Are “The Spectator” ere gaztetu dezakezue!

Zoazte eta hasi zaitetze miauka!

Egizue dantza eta lotsagorritu jendea.

Egizue faloaren dantza

Eta konta itzazue Zibeleri buruzko
pasadizoak!

Esamesaka ibili jaungoikoen jokabideaz

(Esaiozue Strachey jaunari)

Altxa itzazue neska lotsatien gonon magalak,

Hitz egin ezazue haien belaun eta orkatilei
buruz.

Baina, batez ere, jo ezazue jende

praktikoarengana—

Jo itzazue haien ateetako txirrinak!

Esan ez duzuela lanik egiten

Eta betiko biziko zaretela.

Causa

Ele hok laur lagunendako bildu ditut.

Bertze zumaitek entzun ditzake halabeharrez;

Urrikaltzen natzaik, oi mundu horri,
Laur lagun horiek ezpaitituk ezagun.

Agindua

Zoazte, ene kantuok, bakartiengana, pozik ezin egon
daitezkeenengana,

Zoazte halaber nerbioetatik jota daudenengana,
konbentzioen esklaboengana,

Eraman iezaiezue ene erdeinua euren
zapaltzaileekiko,

Joan zaitezte ur hotzezko uhin handi bat legez,
Eraman ene erdeinua zapaltzaileekiko.

Hitz egin ezazue oharkabeko zapalkuntzaren kontra,
Hitz egin ezazue irudimenik gabeko tiraniaren
kontra,

Hitz egin ezazue esteken kontra.

Jo ezazue eneaduraz hiltzen ari den
burgesarengana,

Auzo pobreetako emakumeengana,
Deitoragarriki ezkonduengana,

Jo ezazue euren porrota ezkututzen dutenengana,
Dohakabeki parekatuengana,

Erositako emaztearengana,

Behartutako emakumearengana.

Zoazte kanpora eta aurre egin besteen iritziei,
Zoazte odolaren landare-esklabotzaren aurka,
Egon zaitetze beti herentzia-legeen aurka.

Hitzarmena

Zurekin hitzarmen bat egitera nator, Walt

Whitman—

Luzaroan gaitzetsi zaitut eta aski da!

Ume handi bat bezala natorkizu

Aita kaskagogorra izan zuena;

Adiskidetzeko bezain zaharra naizela uste dut.

Zeu izan zinen baso berrian egurretan sartutako
lehena.

Orain enborrak lantzeko tenorea heldu da.

Izerdi bat daukagu biok, sustrai bat—

Egin dezagun tratu bat elkarrekin.

Apirila

Nympharum membra disjecta

Hiru mamu etorri zitzaizkidan

Eta eraman ninduten beste leku batera,

Olibondo-adaxka erauziak

Lur gainean zeutzan tokira.

Sarraski zurbila laino distiratsuaren azpian.

Gentildonna

Igaro egin zen eta ez zuen utzi dardar-ikararik
zainetan;

Zuhaitzen artean zebilen, soinarekin
mozten zuen aireari
atxikirik,

Orduan zapaltzen zuen belarra haizatuz, badirau
oraindik.

Oliba-hosto urdinarreak zeru hotz euritsu baten
azpian.

Gainerakoa

Oi, ene aberriko babesgabe bakan horiek!
Oi, giza hondakin esklabotuak!

Haren mugen aurrean hautsitako artistak,
Isolatuak, herrixketan galduak,
Mesfidatuak, hitz-gaizkatuak.

Edertasun maitaleak, goseak hilak,
Sistemek zapuztuak,
Babesgabeak kontrolen aurka;

Arrakastaren xerka tematzeagatik,
Zeuen burua ezin jasan duzuen horiek.

Hitz egin besterik ezin duzuen horiek,
Errepikapenetan ezin zaretenak gogortu burdina
bezala.

Zentzu ederragoa duzuen horiek,
Sasi jakintzaren kontra hautsia
Gauzak lehen eskutik jakin ditzakezuen horiek,
Gorrotatuak, giltzapetuak, mesfidatuak:

Aintzat hartu hau:

Ni onik atera nintzen ekaitzetik.

Ene erbestea garaitu nuen.

Itê

Abiatu, ene abesti horiek, bildu itzazue laudorioak
gazte eta intoleranteen aldetik,
Ibil zaitezte perfekzioa maite dutenen artean soilik.
Ahalegindu zaitezte beti zutunik egoten Sofoklesen
argi zailaren azpian
Eta onar itzazue pozik horrek eragindako zauriak.

Dum Capitolium Scandet

Zenbat etorriko dira nire atzetik

Ni bezain ondo abesten, ez hobeto;

Euren bihotzaren egia esaten

Nik erakutsi diedan bezala esaten;

Ene igaliaren hazia,

Oi, ene haur izengabeak,

Jakin ezazue maite zintuztedala denboraren

hastapenetik

Hizlari argiak, eguzkipean biluzik, mugarik gabeak.

Xaboi-pastilla berria

Horra haren distira, haren leinurua eguzkipean,
Chesterton baten masaila dirudi.

Hilartitza

Leucis-ek, grina handiarekin hasi zenak,
Azkenik atsegin ematea beste xederik ez zuen izan.

Arides

Arides herabea

Emazte itsusi batekin ezkondu da,

Aspertuta zegoen bere bizimoduarekin,

Axolagabe eta adorea galdurik, uste izan zuen

Egintza hau beste edozein bezain ona zitekeela.

Bere baitan zioelarik: “Ene buruarendako ez naiz
baliagarri,

Har nazala berak, nahi badu”.

Hondamendira eramán zuen.

Bainuontzia

Ur beroak gainezka egin edota epelduz doanean,
Portzelana zuriaz apaindutako bainuontzi bat nola,
Eta horrela hozten da astiro gure zaldungo maite-
sua,
Oi ene andre biziki laudatua baina ez guztiz egokia.

Izaerak

Bederatzi adulterio, 12 afera, 64 larruketa eta
bortxaketa antzeko zerbait

Metatu dira gaeuz Florialis, gure lagun gozo eta
samurraren arimaren gainean

Eta hala ere gizonaren jokaera hain da isil eta barea
Non denek odolbako eta sexugabetzat hartzen
baitute.

Bastidides, aitzitik, kopulatu eta larrua jotzeaz
baizik idazten eta hitz egiten ez
duenak,

Bikiak izan ditu berriki.

Garesti ordaindu behar izan du, ordea, balentria:
Lau bider bilakatu behar izan du adardun!

Amities

Lagun zaharrak batik bat. — W.B.Y.

I

Norbaiti,

zenbait urteren buruan
itzultzean

Jantzi berberak zeneramatzan aldean, txukun
samarrak,

Nire arrakastak ez zizun inolako atseginik eman,
Besteen aurrean amore ematen duenaren aire zahar
berbera zenuen

Eta horrekin guztiarekin nik neuk gozatuko ote nuen
beldur zinen gainera, nolabait.

Te voilà, mon Bourrienne, zeu ere izango zara
hilezkorra.

II

Beste bati

Zeuri ere esaten dizugu adio
Ematen baitu sekula ez duzula ulertu
Zure harremana arras bizkarroia dela;
Nahiz eta gure festetara ez zenuen ekarri
Ez buru argirik, ez umore onik, ezta dizipuluaren
Jokabide xalorik ere.

III

Baina zu, *Bos amic*, gordetzen zaitugu,
Zurekin benetako zorra dugulako:
Zure ageriko akatsak gorabehera,
Behin aurkitu baitzenuen jatetxe bat merke
samarra.

IV

*Iste fait vir incultus,
Deo laus, quod est sepultus,
Vermes habent eius vultum
A-a-a-a—A-men.*

*Ego autem jovialis
Gaudebo contubernalis
Cum jocunda femina.*

Meditatio

Arretaz behatzen diedanean txakurren ohitura
bitxiei,
Deliberatu beharra daukat
Gizakia nagusitzen zaiela beste animaliei.

Gizakiaren ohitura bitxiei behatzen diedanean
Aitortu behar dut, adiskide, txunditurik nagoela
erabat.

Dives-i

Nor naiz ni, oi Dives, zu gaitzesteko,
Pobreziarekin
Zu alferreko aberastasunarekin
Bezain ozpindurik baldin banago?

Andreak

AGATHAS

Berrogeita lau maitale zituen Agathas-ek antzinako
egunetan,
Denak, baina, arbuiatu zituen;
Orain nigana da bihurtu amodio xerka:
Haren ilea ere beste kolore bateko ari da bihurtzen.

ANDRE GAZTEA

Zure sutondoa mitxoletaz elikatu dut
Eta lau urte osoz gurtu zaitut;
Orain purrustaka ari zara soinekoak ongi ematen ez
dizulako
Eta hori esatea otu zaidalako.

LESBIA ILLA

Memnon, Memnon, andre hura,
Gure artean ibili ohi zena
Lirain eta zalantza antzean
Orain ezkonduta dago
Britainiar etxejaun batekin
Lugete, veneres! Lugete, Cupidinesque!

IRAGAITEN

Afrodita bezain orbangabea,
Ezin ederragoa,
Burugabea,
Zure patxuliaren usain arinak
—Arina, zure kokotsaren zimur krudelak bezain—
Erasaten dit baina ez nau berak ere sobera
kezkatzen.

Phyllidula

Phyllidula iharra da eta maitekorra
Ohore hau eskaini diote jainkoek,
Gozamenetan eman dezakeen baino gehiago jaso
dezala;
Hau ez badu zorion eta bedeinkapentzat hartzen,
Alda dadila erlijioz behingoz!

Ereduak

Erinna guraso eredugarria da,
Umeeek sekula ez dute haren adulterioen berri jakin.
Lalage ere ama eredugarria da,
Haren seme-alabak gizen eta zoriontsuak dira.

Coda

Oi, ene abestiok,
Zergatik begiratzen duzue halako jakinminaz eta
irrikaz jendearen aurpegietara?
Nahi ote dituzue zuen hildako galduak haien artean
aurkitu?

Ikusteko begia

Txakur txikiek zakur handiei so egiten diete;
Haien neurri ikaragarriak ikusten dituzte,
Baita usainaren akats bitxiak ere.

Hemen badago ohiko ar talde bat:

Gizaseme gazteek zaharrei begiratzen diete,
Haien buru helduak aintzat hartzen dituzte

Eta haien arteko harreman ulertezinei behatzen
diete.

Tsin-Tsuk zera esan zuen:

Txakur txikietan eta gazteetan soilik

Aurki dezakegu behaketa zehatz eta xehea.

Ancora

Ene jainko maitea, risqué zarela diote

Oi canzonetti!

Alboradak konposatzera

Munduaren goizeko lauretan jalgi ginenok,

Untxiekin gure ihintza inarrosi genuenok,

Artemisa ere sandaliak lotzen ikusi ditugunok,

Entzun al dugu inoiz halakorik?

Oi Heladeko mendiak!!

Ingura nazazue, musak!

Eguzkiaren argi zarpailez jantzita,

Helikoneko granitozko ertzean eseri ginenean,

Oi bernezur eztiko musak,

Oi belaunburu gozoko musak,

Castaliako lantzurda garbia

Zipriztindu genuenean, gintuenean,

Ba ote ziguten inoiz halako epitetorik bota??

Gerraren etorrera: Aktaeon

Leteoren irudi bat
eta landak

Argi motelez beterik
urre kolore baina,

Labar urdinabarrak,
eta haien azpian

Itsaso bat
Hartoka baino lakarragoa,
egongaitz, nekaezina;

Jainkoen higidura duten
Gorako formak,

Eite lanjerosa;
Eta norbaitek esan zuen orduan:

“Hau de Aktaeon”

Urrezko zango-babesak daramatzen Aktaeon
bera!

Larre ederren gainean,
Zelai horren begitarte hotzaren gainean,
egongaitz, nekaezina
antzinako herri bateko jende samalda handiak,
segitalde isila.

Ch'u Yuan-en arabera

Basoan sartuko naiz

Jainkoak glizinaz apaindurik dabiltzan tokian,

Zilar urdineko erreka-stoaren ondoan

Igarotzen dira beste zenbait, bolizko gurdietan.

Hainbat neskatxa heldu dira

Lehoinabarrentzako mahats bila, adiskide,

ezen orgak lehoinabarrek bultzatzen dituzte.

Argiunean ibiliko naiz

Sastraka berritik irtengo naiz

Eta neskatxen ilarari oldartuko natzaio.

Liu Ch'e

Zetaren far-fara eten da supituki,
Patioan hautsa altxatu da,
Oin-hotsik ez eta hostoak
Zirimoletan korrika ari dira geldi etzan aurretik,
Eta bihotza alaitzen duena atzean geratzen da:

Atalarriari atxikitako hosto umela.

Haizemaile zatia, gorentasun inperialarentzat

Zeta zurizko haizemaile hori,

belar-hosto gaineko antzigarra bezain zuria,
zeu ere bazter utzi zaituzte.

Ts'Ai Chi'H

Lore-hostoak iturrian jausi dira,
Arrosa-hostoak, laranja kolore,
Haien okrea harriei atxiki zaie.

Metroko geltoki batean

Aurpegi horiek jendetzaren artean agertzea:
Petalok adaxka beltz, heze batean.

Goiz-alba

Ezkongai-loreen hosto zurbil
hezeen gisara
nire ondoan etzan zen egunsentian.

Txilarra

Pantera beltza nire albotik igaro da
Eta nire erhien gainean
Su-lamen antzeko lore-hostoak igeri daude.

Esnea bezain zuriak neskatzak
Zutundu egiten dira gorostietatik
Eta elur zuriko haien lehoinabarra
Beha dago gure oinatzei jarraitzeko prest.

Faunoa

Jaun hori! Nire loreen artean ikusi zaitut
usnan eta lo-kuluxkan.

Eta zer dakizu zuk baratzezaintzaz,
aker-oinak dauzkazun horrek?

Zatoz, Austro! Erdu, Apeliota!

Horra faunoa gure baratzean.

Baina mugitzen edo mintzatzen bazarete

Gauza tarrapataka oldartuko zaizue

Eta espasmoetaraino ikaratuko.

Coitus

Safran urrezko zakilek
printzatu dute udaberriko airea.

Hemen ez dago jainko hilik
Eta bai, ordea, festako prozesio bat,
Prozesio bat, Oi Giulio Romano,
Zeure izpiritua bertan bizitzeko egokia.
Dione, zure gauak gure gainean daude.

Ihintza hostoaren gainean datza.
Inguratzen gaituen gauak ez du atsedetik hartzen.

Elkartzea

Moralitate berriari buruz hizketan aritu ziren tarte
osoan

haren begiek ikuskatu ninduten.

Eta joateko jaiki nintzenean

Haren erhiak japoniar musu-zapi

Baten ehuna bezalakoak ziren.

Tempora

Io, Io, Tamuz!

Driada nire patioan zutik

Kexu, deiadarka eta negarrez

(Tamuz. Io! Tamuz!)

Oi, ez, neskak ez du “Tamuz” oihukatzen.

Neskak dio: “Inprimatu ahal izango dituzte nire
poemak aste honetan?”

Pan jainkoa zuri galdetzeko beldur da.

Inprimatu ahal izango dituzte nire poemak aste
honetan?”.

Zapatila beltzak, Bellotti

Gurearen ondoko mahaian
Antezko zapatila txikiak kenduta,
Oinak galtzerdi zurietan bilduta
Eta zorutik musu-zapi batez zuhurki bananduta
Solasean ari da neska:

“Connaissez vous Ostende?”.

Jatetxeko beste puntan dagoen italiar andre
zizakariak
Nolabaiteko hauteur batekin erantzuten dio,
Baina ni eroapenez geratzen naiz aiduru
Ikusteko Celestinek nola janzten dituen berriro
zapatilak,
Auhon batekin janzten ditu berriro.

Gizartea

Familiaren egoera gainbehera zihoan.

Eta hau dela-eta Aurelia tipiak,

Hamazortzi udaraz etenik gabe barre egin zuenak,

Orain Fidiporen ukipen idorra jasan behar du.

D'Orleans-en irudia

Gizon gazteak zaldiz ibilki karrikan
Saso berri distiratsuan
Arrazoirik gabe ezproiak sartzen dizkiete
Zaldiei eta saltoak eragiten.

Eta urratsari eutsiz
Zaldien oin ferratuak txinpartak
Ateratzen dituzte galtzada-harrietatik
Saso berri distiratsuan.

Papiroa

Primadera...

Sobera luze...

Gongula...

Ione, urte bete luzea hilik

Bideak hutsik daude,
Lur honetako bideak hutsik daude
Eta loreak

Amiltzen dira buru pisuekin;

Alferrik amildu ere.

Lur honetako bideak hutsik daude.

Bertatik Ione ibili zen

Behin eta orain, ordea, ez dabil

Eta badirudi joan berri den norbait

Ιμέρω

Hire arima
Samurbera hazi dun asetazunez,
Atthis.

Oi Atthis,

Hire ezpainen irrika nagon
Hire bular ttipien irrika nagon
Hi, artega eta urduri, ezin-bilduzkoa.

Dendaria

Une batez nire kontra bermatu zen

Haizeak hormari aitzi kasik jaurtiki enara baten
gisa,

Eta haiek Swinburneren emakumeei buruz ari ziren,

Eta Artzaintsa eta Guidoren arteko topaketaz

Eta Baudelaireren emagalduez.

Formianus-en neska-lagun gazteari

Valerius Catullus-en arabera

Agur! Andre gazte hori, sudur
 ttipiegirik inolaz ere ez duzuna,
Oin bat ez duzu ederra
 eta zure begiak ez dira beltzak;
Erhiak ez dituzu luzeak ezta lehorra ahoa,
Mihia ere ez duzu sobera dotore,
zeu zara Formianus, kosmetiko saltzailearen laguna,
eta probintzian eder deitzen zaituzte denek,
eta Lesbiarekin ere gonbaratzen zaituzte.

Hau aro zorigaiztokoa!

Katu otzana

Emakume ederren artean egoteak atsedean ematen
dit.

(Zergatik esan behar ote dugu gezurra beti gai
hauei buruz?)

Berriro diot:

Emakume ederrekin solasean egoteak atsedean
ematen dit.

Nahiz eta gure solasgaiak zentzugabekeria besterik
ez izan.

Antena ikusezinen xurrunga
Bizkortzailea da eta xarmangarri.

L'art, 1910

Artseniko ferdea arrautzaren zuringoa bezalako
oihal batean hedatua,
Lehertutako marrubiak! Hator hona, hau besta
ederra gure begientzat!

Simulacra

Zergatik dabil, bada, zaldi-aurpegiko emakume hori,
—Debeku haren adina aipatzea— Longacre-tik
behera Swinburne ezin

entzunezko ahotsez bere
baitarako errezitatzen?

Zergatik dabil lau hanketan narras, larru imitaziozko
beroki zuri iluna

jantzirik
daraman haur ttipi hori

errepide-ertzeko erreten beltzean, mahatsetako
saltokiaren azpian?

Zergatik hurbildu zait Sackville Street-en emazte
zinez ederra,

Nire jantzi nabarmenki zaharkituek gibelarazi
gaberik.

Emakumeak denda baten aurrean

Sasi anbar eta sasi turkesaz eginiko imitaziozko
bitxiak erakartzen

dituzte.

“Batzuk nolako, besteak halako” beilegi aglutinatu
horiek!

Gibel solasa

Oi, gure aitzineko kantuak,
Zazpi eguneko miraria izan zineten
Aldizkarietan agertu zinetenean
Chicagon zirrara piztu zenuten.
Eta orain zahartu, higatu eta usteldu egin zarete,
Modaz kanpo zaudete erabat,
Mirinake bat, kapota bat,
Zaharkin arrunt eta galkor bat.
Zirrara eta emozioek baino ez dute irauten.
Zuen zirrara eta emozioak?
Maître-de-café batenak dira.

Gizarte-ordena

I

Emaztea bera baino zenbait urte zaharragoa den
Gobernuko funtzionario honek
Lausengari aire handia du
Andre gazteei eskua ematen dielarik

II

(Pompes Funebres)

Sei kandelak eta gurutzefika batek
Inguratzen dute orain
“Hain zaharra izaki, atea
zen” emakume zahar hau;
Bizkitartean iloba baten bigarren emazteak
Etxeko ondasunak xahutzen ditu,
Atsoaren bi katuak
Bera baino lehenago heldu dira su-leizera,
Kloroformoz buruturiko autoinmolazio mota bat,

Eta espero denez haien izpirituak
buztanak tente ibiliko omen dira
Marru gozo negartiak lagun;
Zeren eta, zalantzarik gabe, atsoak mundu honetan
Utzi duen soinu bakarra
Ahaide emeen liskarra izan da.

Te-aretoa

Te-aretoko neska

ez da jadanik izan ohi zen bezain ederra.

Abuztuak haren azala higatu du,

Dagoeneko ez ditu eskailerak lehen bezain gogotsu
igotzen;

Bai, bera ere erdi adineko bilakatuko da

Eta ez du honezkero zabalduko,

Opilak zekartzalarik,

Gure inguruan zabaldu ohi zuen gaztetasun distira.

Bera ere erdi adineko bilakatuko da.

Aintzirako irla

Oi Jainkoa, Oi Venus, Oi Merkurio, lapurren
Zaindaria,
Emadazue otoi, arren, tabako-denda ttipi bat,
Kutxa ttipi distirantak
artoski pilaturik apalategian
Eta mastekatzeko tableta solte usaingozaok
eta tabako xehatua,

Eta Virginiako gorri distiranta
solte beirazko estalki distiratsuen azpian,
Eta pare bat haztakin, ez sobera koipetsuak,
Eta emagalduek, aitzinetik pasatzean, sar-jalgika
ele gose,
Ele goxo irrigarri baten xerka edo ilearen
amiñi bat apaintzerat.

Oi Jainkoa, Oi Venus, Oi Merkurio, lapurren
Zaindaria,
Emadazue tabako-denda ttipi bat, edo bestela
ezar nazazue edozein lanbidetan,
Idazle lanbide malapartatu honetan salbu,
non eta burmuinak erabili behar baitira tai
gabean.

Hilartitza

Fu I

Fu I-k hedoi gorak eta mendixka
zituen maite,
Helas, alkoholak erhan zuen!

Li Po

Eta Li Po ere hil zen horditurik.
Ilargia besarkatzera entseatu zen
Ibai Horian.

Gure garaikideak

Tahitiar printzesak gizonak
Bere erabakia hartua zuela entzun zuenean
Arineketan irten zen eguzkitara eta palmondo
batera igo.

Gizona, ordea, bere irlara itzuli zen
Eta laurogeita hamar soneto idatzi zuen Petrarcaren
erara.

Antzinako jakituria, kosmikoa agian

So-Shuk amets egin zuen,
Eta txoria, erlea eta tximeleta zela amestu ondoren,
Duda-mudan hasi zen zergatik behar ote zuen beste
zerbait sentitzen

saiatu.

Hortik haren bozkarioa.

Hiru poetak

Candidiak maitale berria hartu du
Eta hiru poeta penatzen hasi dira.
Lehenengoak elegia luze bat idatzi dio “Chloris”i,
“Chloris aratz eta hotzari”, haren “Chloris bakarra”.

Bigarrenak emakumeen aldakortasunari
buruzko hamalaukun bat.
Eta hirugarrenak, berriz, epigrama bat idatzi dio
Candidiari.

Ijitoa

“est-ce que vous avez vu des autres —des
Camarades— avez des singes ou des ours?”

Ibilaldia burutua zen, eta orduan esan zuen:

“Ikusi al duzu gutako beste inor,
Bere tximu eta hartzekin?”.

—Itzelezko lagun beltzaran bat zen,
Xarneguak ez bezalakoa,
errege bide bustian Clermont-etik hurbil.

Haizea heldu zen eta euria,
Eta lainoa gatzatu zen haraneko zuhaitzen inguruan.
Bide luzeak utziak nituen gibelean
Arles arrea eta Biaucaire.

Eta berak esan zuen orduan: “Ikusi al duzu gutako
beste inor?”.

Haietako asko ikusia nengoen...

Rodez-etik hara
Denak ilaran Done Joaneko
feriatik zetozela

karabanetan, baina tximu eta hartzik gabe.

Xake jokoia

Xake jokoari buruzko jakinarazpen dogmatikoa:
Margo sail baterako gaia.

Zaldizko gorriak, alfil beltzak, erregina argiak,
Taulan ozenki oldartuz, kolorezko L ahaltsuetan
eroriz,

Helduz eta erasoka angeluetan,
kolore bakarreko lerroak osatuz.

Taula hau bizirik dago argiarekin:
pieza hauek forma bizidunak dira;
haien mugimenduek diseinua hausten dute eta
berregiten:

Dorreetatik ferde argiak,
Erreginen "X"ekin talkan
Zaldizkoen jauzien gerizan.

“Y” higikerako peoiak, atxikiz, hesiak eraikiz!

Jirabira!, zentripetua! Mate! Errege jauzi da
zurrunbiloan,

Liskarra, ertzen gainean jauzi, kolore biziko oihal
eta bandera hedatuak,

Argi etenak jardunean oraindik. Ihesaldiak.

Norgehiagoka berriz hasi da.

Provincia deserta

Rochecoart-en,
non eta muinoak

hiru norabidetan

abiatzen baitira
eta xendra bihurritz zeharkaturiko hiru bailara
bide-sarde batean hego eta iparralderantz banatzen
diren,

badago zuhaitz baso bat... likenez urdindurik.

Oinez ibili naiz han barna

egun zaharrak

gogoan.

Chalais-en

elkarlotutako adarrez

osatu estalpe bat dago;

pentsiodun zaharrak eta andere zahar babestuek
han egoteko eskubidea dute—

karitatea da.

Narras ibili naiz gapirio zaharren artean

behera begira,

Dronne aldera,

Lili xuriz beteriko xirripa baten
gainean.

Ekialdean bidea hedatzen da,

Aubeterre ekialdean

dugu,

Hango ostatuan agure berritsu bat.

Bertako bideak ezagutzen ditut:

Ipar-ekialdean Mareuil,

la Tour,

Badira hiru dorre Mareuil-etik gertu,

Eta andere zahar bat Arnaut-i entzutearekin pozik,

Pozik jantzi lehorrak guri eskaini ahal izatearekin.

Perigord-en

sartu naiz oinez,

lastargietako sugarrak haizean kulunkan ikusi ditut
goian.

Elizako aitzinaldea margotzen;

Ilunpean barre algararen zirimola entzun dut.

Ur lasterrean berriro so egitera bihurtu naiz

eta eraikin

handia ikusi,

minaret luzeak ikusi, zutabe zuriak.

Ribeyrac-en izan naiz

baita Sarlat-en ere,

andeatutako eskailerak igo ditut, Croy-z mintzatzen
entzun,

En Bertran-en lursail zaharretan sartu naiz,
Narbonne ikusi dut, eta Cahors eta Chalus,
Excideuil ikusi dut, arretaz landu eta moldatua.

Hauxe esan dut:

“Hemen honakoa ibili zen.

Hemen Coeur de Lion hil zuten.

Hemen ondo kantatzen zen.

Hemen gizon batek urratsa azkartu zuen.

Hemen norbait etzan zen

hatsanturik”.

Hautefort-etik hegoalderantz so egin dut,

Montagnac gogoan,

Hegoaldean.

Rocafixadan etzan naiz

ekisartzearekin

berdinduta,

kobrea ikusi dut goitik behera

mendiak tindatzen.

Landak eta soroak ikusi ditut zurbil, esmeralda bat

bezain garbiak,

gailur zorrotzak, mendi-bular gorak, urrutiko
gazteluak.

Hauxe esan dut: "Bide zaharrak hemen egon dira.
Gizakiak bailara honetan eta horretan barna ibili
dira,

bertan areto ederrak elkarretarik hurbilago
zeudelarik".

Foix ikusi dut bere harkaitz gainean, Tolosa ikusi,
bai eta

Arles ere, handizki aldaturik.

"Dorata" suntsitua ikusi dut

eta esan:

"Riquier, Guido!".

Bigarren Troiari buruz
pentsatu dut,

Auvernian sobera preziatzen ez duten leku batean.

Bi gizon txanpon bat airera botatzen ari, bata
gazteluaz jabeturik,

Bestea errege bidean barna kantatzera abiatu behar.

Emakume bati abestu zion.

Auvergne altxatu zen kantu harekin.

Daufinak aldeztu zuen:

"Gaztelua Austors-entzat!".

“Pieire-k jarraitu zuen
abesten—

Gizon jatorra zen eta atsegina”.

Anderea berak irabazi zuen,
Lapurtu egin zuen, eta atxiki
indar armatuaren kontra:

Honela amaitzen da istorioa.

Garai hura iragana da dagoeneko;

iragana, halaber, Pieire de Maensac-en bizia.

Bide hauetan barrena ibili naiz oinez;

gogoan erabili ditut, artean bizirik zirelarik.

Pagani-n, azaroak 8

Bat-batean Normandiako

cocotte ezin ederragoaren begietan

Museo Britainiarreko laguntzaile jakitunaren begiak
ediren ditut.

Quintus Septimius Florentis Christianus-i omenaldia

(ex libris Graecae)

I

Nire heriotzak Theodorus poztuko du,
Eta beste norbait poztuko du Theodorusen
heriotzak,
Eta, hala ere, denak ari dira gaizki esaka heriotzaz.

II

Leku hau Cipris-ena da, berak maite izan baitu beti
itsaso argiari so paratzea.
Hortaz, marinelak alai eta adoretzu dira, eta uhin
ttipiak,
begirunez, ez dira hazten, haren irudiari beha
daudela.

III

Gaizki handi eta goibela dugu heriotzari itxaron
 beharra—

Eta badira, gainera, hiletaren gastu alferrikakoak;
Beraz ez ditzagun gaur gero hildakoak gupida
heriotzaren ostean ez baitator beste zorigaitzik.

PALLADAS

IV

Troia

Non dira, hiri hori, zure irabazi eta mozkinak, zure
 urrezko aldareak,

Zure idi erraldoi haien barbakoa handiak,
Eta zure karriketan gaindi zebiltzan emakume
 garaiak, jantzi

 liluragarriak soinean,

lurrina alabastrozko kutxa ttipietan gorderik
 zeramatenak?

Non dira bertan jaiotako zuen eskultoreen lanak?

Denborak bere hortz-hagin zorrotzak sartu ditu zure
leinuaren etxean, eta bai, halaber,
gerrak eta patuak.

Bekaitzak den-dena ebatsi dizu

Zure iraungitzea eta zure kondaira izan ezik.

AGATHIAS SCHOLASTICUS

V

Emakumea? Ene! Emakumea erabateko furfurua da,
baina hilik edo loak hartuta, atsegín ematen
du.

Eraman ezazu, baditu-eta bi sasoi eder!

PALLADAS

VI

Nicharcus-ek

Phidon bere doktoreaz

Phidon-ek ez ninduen purgatu, ezta ukitu ere,

Baina haren sukarraren kontrako erremedioaren
izena gogora
ekarri nuen
eta hil egin nintzen.

Arraina eta itzala

Izokin-amuarraina jitoan dabil errekastean,
Errekastoaren gainean izokin-amuarrainaren arima
kulunkan
argi-ostia mehe bat iduri.

Itsasoetako izokina eguzkiak piztutako ur apal
argietan ibili ohi da ...

Uretan pulunpatzen den arrainaren itzala

bezain arin,
heldu zen bera areto handira eskaileretan zehar,
Aharrausika heldu zen, loa oraindik aldetik
kentzerik izan ez balu bezala.

“Ohetik jaiki berria naiz. Loa oraindik dago nire
begietan

Etorri. Amets luze bat izan dut”.

Eta nik: “Oihan hura?”

Eta bi iturburu haiek igaro ziren gure ondotik”.

“Ez hain urrun, ez hain urrun orain.

Badago leku bat —baina beste inork ez du
ezagutzen—

Belaze bat ibar batean...

Qu'ieu sui avinen,

Ñeu lo sai".

Andreak denboraz mintzatu behar du,
Arnaut de Mareuil, pentsatu nuen nik, "qu'ieu sui
avinen",

Ur ferde hitsean pulunpatzen den
Arrainaren itzala bezain arin.

Cantico del sole

(Akuilatzeetatik)

Klasikoek zabalkunde handia izan balute
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
galarazten dit loa,

Klasikoek zabalkunde handia izan balute
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
galarazten dit loa,

Nunc dimittis, emaiozu orain baimena zure
zerbitzaileari
bakean joateko

Klasikoek zabalkunde handia izan balute
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
Amerika nolakoa litzatekeen pentsatzeak
Hara!

loa galarazten dit.

Abu Salammamm

Inperioko kanta bat

*Honelako poema bat idatziko
nuke George V.a erregeak
Buckingham Jauregiren aurreko
iturriari katigaturik izan banindu
eta eman izan balit nahi beste janari
eta emakume.*

Handia da George bosgarrena erregea,
Iturri honi katigatu bainau;

Idi-hezurrekin eta ardoarekin elikatzen nau.

Handia da George bosgarrena erregea—

Haren jauregia marmol bezain zuria da,

Haren jauregiak laurogeita hamazortzi leiho ditu,

Haren jauregia herenetan ebakitako kubo bat

bezalakoa da.

Berak hil du herensugea

eta Andromeda izeneko

dontzeila askatu.

Handia da George bosgarrena erregea;

Zeren haren armadako soldaduak andana baitira,

Haren armada mila eta berrogeita zortzi soldaduk
osatua da,

Denak jaka gorriekin
ipurmasailen inguruan,

Eta aurpegi gorriak dituzte, adreiluak bezain.

Handia da Ingalaterrako erregea eta beldur handia
diote denek,

Zeren katigatu bainau iturri honi;

Emakumez eta edariz hornitzen nau,

Handia da George bosgarrena erregea

Eta dirdiratsua haren
iturri hau.

Izurdeen gainean dabiltzan jainko gazteekin
apaindurik dago

Eta haren ura zeta bezain zuria da,

Handia eta harroa haren iturria;

Eta haren gainean, eserita, Victoria erregina zena
dugu,

Errege handiaren ama, uztaiko gona bat jantzita,

Haurdun dagoen emakume bat balitz bezala.

Bizi bedi betikoz erregea!

Bizi bedi mila urtez erregea!

Printze ttipia ergela baita eta burugogorra;

Zirikatu eta izorratzen nau bere trufa eta makilekin,
Eta aginpidera heltzen denean
Beste norbait katigatuko du iturri honetan.
Eta orduan akabo nire loria
Akabo nire bozkariora!

Gerra bertsoak (1914)

Oi, bi xoxeko olerkariok, egon lasai
Ezen hamar urtetarik bederatzi dituzue
Loriaren bila tiroka ibiltzeko—
jostailuzko armekin;
Egon lasai, emaiezu soldaduei euren aukera
Eta ez saiatu zuen bi xoxeko loria erauzten
Lovainako hondakinetarik
Edota arras kiskalitako Liejatic,
Leman eta Brialmont-etik.

1915: Otsaila

Larruzko jaka, larruzko zangozorroak jantzirik,
ingeniari satsua

Bere makina mekanikoaren aurrean dabil

Sagetatik jalgitako irudi baten gisara,
Grettir edo Skarpheddin balitz bezala,
Errege baten ibilera harroarekin.

Eta makinak atzetik segitzen dio nekez eta astiro
Piztia mitologiko baten antzera.

Sorgindu eta katigaturiko Grendelek bezala,
Baina haren zorte txarrak ez dit sagarik idatzaraziko
Eta zuek ere ez diozue burezur misterioetsua
hautsiko,

Oi, zuek, literaturgile sobera ikasi, sobera zorrotz
eta dotore horiek!

Ezta zuek ere, latatik jaten duzuen errealistok,
Zuek, eleberrien biderkatzaileok!

Bera badabil eta ni banabil,
Bera gelditzen da eta ni gelditzen naiz.
Bera gizajendea da eta ni arteak.
Gu legez kanpokoak gara.
Gerra hau ez da gure gerra,

Bi aldeetarik ezein da gure aldea:
Mediebalismo petral bat,
Merkataritza sabel lodi, tripa-handia,
Gure aldean ez dago inor:
Emagalduek, tximuek, erretorikoak,
Buru-zigortzaileak! Dies irae bezain
Beltza izaten ari den urte batean,
Ezcutuko bazter-bidea baino ez dugu inguruan,
Ezcutuko adaxkak eta haien kimuek lore-begietan
 lehertzen dira

I. Kantua

Eta orduan itsasontzira jaitsi ginen
Gila urautsietara bidean genuen jarri, itsaso
jainkotiarren aldera
Masta eta haize-oihala gora jaso genituen ontzi
goibelean,
Ardiak igoarazi genituen, baita, negarraren
negarrez,
astun eta goibel geratuak zitzaizkigun soinak ere,
eta txopatik zetozen haizeek
aitzina bultzatu gintuzten belak puzturik,
Itsasontzi hau Zirtzerena zen, ilea dotore orraztua
daraman jainkosarena, alegia.
Orduan ontziaren erdian eseri ginen, haizeak
lemazurruna zapart eginarazten
zuen,
Horrela, belak hedaturik, itsasoan gaindi ibili ginen
eguna finitu artio.
Eguzkia lotara, itzalak ozeano osoaren gainean,
Orduan heldu ginen itsas hondar gaberaren
hegiraino,
Zimerioen lurretara, eta populatutako hirietara,

Laino lodian ongi bilduta, eguzki printzarik
zorrotzenek ere

Ezin zula zezaketenak beren leinuruarekin
Ez hedatutako izarrek ere, eta gaurik beltzenak
atzera so egiten zien han ziren gizaki dohakabeei.
Ozeanoko urak gibelera zihoazela, heldu ginen
Zirtzek

Aurresandako tokira.

Hemen Perimedes eta Eurylokok beren errituak egin
zituzten

Eta aldakatik ene ezpata meharra atereaz
Kana-erdi koadroko zulotxo zabaldu nuen;
Gure libazioak isuri genituen hildako bakoitzeko
Lehendabizi ezti-ura eta gero ardo goxoa, ura irin
zuriarekin nahasia.

Orduan otoitz ugari otoiztu nizkien herio
erigarriaren buruei;

Itakan erabaki bezala, zezen antzu onenatarik
Sakrifiziorako, egurketan ondasunak pilaturik,
Tiresiasendako bakarrik ardi bat, ardi beltza,
ezkiladuna.

Odol iluna isuri zen hobian,
Ereboko mamuak, emaztegaien, gazteen
eta asko pairatutako zaharren gorputz hilotzak;

Malko isuri berriek orbandutako arimak, neska
samurrak,
Gizon aunitz, brontzezko lantza-buruek zulatuak
Gudu harrapakinak, arma goibel akigarriak oraino
jantzita,
Hauek guztiek inguratu ninduten; garrasika;
Zurbil; ene gizona abere gehiago eskatu nien;
Pizti saldoak sarraskitu nituen, brontzez akabatu
nituen ardiak;
Ukendua isuri nuen, jainkoei deiadar egin nien
eskean,
Pluton ahaltuari, eta Proserpina goretsi nuen;
Ezpata mehea furrebotik atera nuen,
Eseri egin nintzen, herio antzu eta oldar handikoa
aldentzeko.
Harik eta Tiresias entzungo nuen arte.
Lehenik, baina, Elpenor heldu zen, gure lagun
Elpenor,
Ehortzi gabea, lur zabalean egotzia
Haren gorputz-adarrak Zirtzeren etxean utzi
genituen,
Harengatik malkorik isuri gabe, gorpua beztitu barik
hilobian, beste lehentasun batzuk
genituen.

Izpiritu deitoragarria. Eta deiadar egin nion hitz-
jario arinean

“Elpenor, nola iritsi zara kostalde goibel honetara?

”Oinez heldu zinen, marinela baino bizkorrago?”.

Eta berak ahots lodiz:

“Patu gaiztoak eta ardo ugaria. Zirtzeren
izterrondoan egin nuen lo.

”zurubi luzea ardurarik gabe jaisten ari nintzela,

”horma-bularraren kontra jausi nintzen,

”garondoa hautsi nuen eta arima Avernoko
leizearen bila abiatu zen.

”Baina zuk, errege horrek, gogora nazazu, otoi,
besteen malkorik gabe, ehortzi gabe
geratu nintzen hau,

”Meta itzazu nire armak, itsasertza izan dadila nire
hilobia, eta hilartitza honakoa:

”*Zorigaiztoko gizona, ospe eta izena etorkizun
zituen.*

”Eta jarri nire ondoan beste itsasturiekkin batera
eragin nuen arraun hura zutunik”.

Eta heldu zen Antikleia, baina gibelarazi nuen kolpe
batez, eta gero Tiresias Tebaskoa

Eskuan bere urrezko makila zuelarik, eta mintzo zen
lehenik:

“Bigarren aldiz? Zergatik? izar gaiztoko gizona,
Eguzkirik gabeko herioari eta beraren aurkintza
goibelari aurre eginez,

”Jalgi hadi hobitik, utzidak edabe odoltsu hau
”nire iragarpenetarako”.

Eta urrats bat egin zuen atzera,
Eta odolak bizkorturik, esan zuen orduan: “Odiseo
”Neptuno mendekarian barrena, Itsaso ilunen
ganean itzuliko zara
”Kide guztiak galduko dituzu”. Eta orduan Antikleia
etorri zen.

Divus geldi geratu zen. Andres Divus, esan nahi dut
In oficina Wechelli, 1538, Homerotik jasorik.
Eta itsasoratu zen, Sirenen ondotik eta handik urrun
Zirtzerenganaino

Venerandam,
Kretakoaren esanetan, urrezko koroa jantzirik,
Afrodita,
Cypri munimenta sortita est, bozkariaturik,
orichalchi, urrezko

Gerrikoarekin eta bandak bularretan, betile ilunak
dituen hori,
Argos-hiltzailearen urrezko adaxka. Hortaz:

XLV. Kantua

Lukurreriaz

Lukurreriaz inork ez du izanen harri oneko etxerik,
Koskor bakoitza leun mozturik eta ongi egokiturik,
haren diseinu ederrak aurpegia estaltzen diolarik.
lukurreriaz

Ez da izango bere elizako horman paradisua
margoturik daukan gizonik

harpes et lutes

Eta ama birjinak ez du izanen mezua non jaso

Eta argi-koroa ez da ebakidura batetik jalgiko;
lukurreriaz inork ikusi ez Gonzaga edota haren
ohaideak,

Ez da margorik eginen gure artean bizirik iraun
dezan

Baina eginez gero, saltzeko eginen dute, baita fite
saltzeko ere

lukurreriaz, naturaren aurkako bekatu hori,
zure ogia pilda ustelez egina izanen da,
papera bezain lehorra izanen da zure ogia,
gari metarik ez, ezta irin tinkorik ere,
lukurreriaz ez dago muga zehatzik

eta inork ez du bere bizilekua aurkitzerik izanen.
Hargina bere harritik aldentzen du lukurreriak,
ehulea bere ehundegitik

Lukurreriaz

Artilea ez da azokara heltzen
Ardiei ez diete etekinik ateratzen,
Lukurreria izurritea da, lukurreriak
Sehiari eskuan duen orratza kamusten dio
eta iruleari trebantza eragozten.

Pietro Lombardo ez zen lukurreriaz heldu gure
artera

Duccio ez zen lukurreriaz jin
Ezta Piero della Francesca ere;
lukurreriaz ez zen Zuan Bellin-ik izanen.

“La Calumnia” ez zuen lukurreriak margotu.
Fra Angelico ez zen lukurreriaz etorri, eta ez
Ambrogio Praedis ere

Adamo me fecit.

Sinaturiko harlanduzko elizarik
ez zen izanen lukurreriaz.
Lukurreriaz Saint Trophime-rik ez,
lukurreriaz Saint Hilaire-rik ez.

Lukurreriak zizela herdoiltzen du
artisaua eta artisau-lana herdoiltzen ditu
haria eta ehundegia hortzikatu eta karraskatzen.
Inork ez zuen urrea ehotzen ikasi
bere txantiloian;
Lapislazuliak xangrea du lukurreriagatik;
gorrimina ehundu barik legoke
Esmeraldak ez luke Memling kausituko;
Lukurreriak haurra akabatzen du umetokian
Gizon gazteari gorteatzea galarazten dio
ohera elbarritasuna dakar
eta emaztegai gaztearen eta senargaiaren artean
etzan ohi da

CONTRA NATURAM

Eleusis-era emagalduek ekarri dituzte,
Oturuntzarako prest daude hilotzak
lukurreriaren manuz.